## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

## Zk-1264

AGINDUA, 2002ko urtarrilaren 30ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Establezimenduen Erregistroan inskribatzeko prozedura arautzen duena.

Urtarrilaren 9ko 5/1996 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Establezimenduen Erregistroa eta establezimenduak instalatzeko, zabaltzeko eta tokiz aldatzeko jardunbidea arautzen dituen Erregelamendua onartzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Establezimenduen Erregistroa sortu zuen eta honakoak ezarri zituen: Erregistroaren araubide juridikoa eta egitura, informazioa eskuratzeko sistema eta inskripzioan jaso beharreko datuak jakinarazi beharra. Gerora, urtarrilaren 15eko 10/2002 Dekretuak zati batean aldatu zuen urtarrilaren 9ko 5/1996 Dekretua.

Era berean, urtarrilaren 9ko 5/1996 Dekretua garatzen duen 1996ko otsailaren 29ko Aginduak inskripzioa egiteko prozedura arautzeaz gain, industria instalazioak zerbitzuan jartzeko eta/edo baimentzeko prozeduraren inguruko gora-behera guztiak arautzen ditu.

Bestalde, instalazio industrialak martxan jartzeko prozedura sinplifikatzeko 2000ko abenduaren 26ko Aginduaren bidez, indargabetu egin zen 1996ko otsailaren 29ko Aginduaren bigarren zatia, hau da, industria establezimenduak zerbitzuan jartzeari buruzko eta/edo baimentzeari buruzko zati guztia.

Beraz, aipatutako Dekretuaren edukitik abiatuta, Industria Establezimenduen Erregistroari buruzko arautegia osatzea da Agindu honen helburua, eta, horretarako, inskripzioei buruzko administrazio-izapideak egiteko prozedura berria diseinatzen du. Izan ere, prozedura berri honen asmoa da inskripzioei buruzko administrazio-izapideak sinplifikatzea, inskripzioa egiteko modua erraztuz eta inskribatutako datuak eguneratzeko sistemak sinplifikatuz.

Horrez gain, aldaketa horrek argi erakusten du Industria Establezimenduen Erregistroko inskripzioa industria establezimenduek egiten duten aitorpena baino ez dela, eta hori bat dator industriaren liberalizazioarekin; izan ere, industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legean eta lege horren ondoren, industria jarduera arautzeko onartu izan diren beste arauetan ere hala dago jasota.

Urtarrilaren 9ko 5/1996 Dekretuko eranskineko 11.4 artikuluak eta urtarrilaren 15eko 10/2002 Dekretuko azken xedapenetatik lehenengoak baimena ematen diote industria gaietan eskumenak dituen sailburuari, agindu bidez, dekretu horietan xedatutakoa ga-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

## N°-1264

ORDEN de 30 de enero de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se aprueba el procedimiento de inscripción en el Registro de Establecimientos Industriales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Decreto 5/1996, de 9 de enero, por el que se aprueba el Reglamento regulador del Registro de Establecimientos Industriales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el régimen para su instalación, ampliación y traslado, crea el Registro de Establecimientos Industriales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y establece su régimen jurídico, estructura, sistema de acceso a la información y comunicación de los datos que constituyen el objeto de inscripción. Este Decreto ha sido modificado parcialmente mediante Decreto 10/2002, de 15 de enero, de modificación del Decreto 5/1996, de 9 de enero.

Así mismo, la Orden de 29 de febrero de 1996, de desarrollo del Decreto 5/1996, de 9 de enero, regula el procedimiento de inscripción, así como el procedimiento para la autorización y/o puesta en servicio de instalaciones industriales.

Mediante Orden de 26 de diciembre de 2000, de simplificación del procedimiento para la puesta en funcionamiento de instalaciones industriales, se deroga la segunda parte de la Orden anterior, es decir todo lo referente al procedimiento para la autorización y/o puesta en servicio de instalaciones industriales.

Partiendo del contenido del referido Decreto, la presente Orden viene a completar el marco normativo regulador del Registro de Establecimientos Industriales, diseñando un nuevo procedimiento para la tramitación administrativa de las correspondientes inscripciones, procedimiento que se basa en la necesidad de simplificar, en la medida de lo posible, este procedimiento, favoreciendo el cumplimiento de la obligación de inscripción y simplificando los sistemas de actualización de los datos inscritos.

Así mismo, esta modificación profundiza en el carácter declarativo del Registro de Establecimientos Industriales, acorde con la liberalización industrial plasmada ya en la ley 21/1992 de 16 de julio, de industria, y desarrollada en las sucesivas regulaciones de la actividad industrial aprobadas con posterioridad a la referida norma.

El Artículo 11.4 del Anexo del Decreto 5/1996, de 9 de enero, en relación con la Disposición Final Primera del Decreto 10/2002, de 15 de enero, faculta al Consejero competente en materia de industria para que, mediante Orden, se desarrolle el contenido de dichos De-

ra dezan eta Industria Establezimenduen Erregistroan inskribatzeko betekizunak eta agiriak zehaz ditzan, erregistroa eguneratuta mantentzeko prozedura ere ezarriz.

Ondorioz, aipatu diren xedapenen eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen arauen arabera, honakoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Helburua eta ezarpen eremua.

1.– Agindu honen helburua da Industria Establezimenduen Erregistroan inskribatzeko administrazio prozedura arautzea, urtarrilaren 15eko 10/2002 Dekretuak aldatu zuen urtarrilaren 9ko 5/1996 Dekretuak agindutako preskripzioak kontuan hartuta.

2.– Industria-jarduera berriak eta dekretu hau indarrean jartzen den egunean inskribatuta dauden industria-jarduerak inskribatu beharko dira Erregistroan. Baina, kontuan izan behar da azken horiek inskribatu beharko direla, baldin eta Agindu honetako 2. artikuluan aurreikusitako aldaketa garrantzitsuren bat gertatzen bada.

*2. artikulua.*– Aldaketa garrantzitsuak.

Agindu honetan jasotakoaren ondorioetarako, aldaketa garrantzitsutzat joko dira honako hauek:

1.– Jarduera aldatzea.

Ematen diren zerbitzuen edo fabrikatutako produktuen izaera, mota edo klasea nabarmen aldatzen badira, jarduera aldaketatzat joko da, eta berdin izango dio eskuragarri dituzten bitarteko materialak edo ekoizpen elementuak aldatzen diren edo ez.

2.– Lekualdatzea.

Industria jarduera egiten den establezimendua beste toki batera aldatzen bada.

3.– Titulartasuna aldatzea.

Industria establezimenduaren edo jardueraren titulartasuna aldatzen bada edo titularraren nortasun juridikoa aldatzen bada.

4.– Industria establezimenduetako beste aldaketa garrantzitsuak.

Industria jarduerari uztea, titulartasuna aldatzea, jarduera aldatzea edo jarduteko tokia aldatzeaz gain, badaude beste gertaera batzuk jakinarazi eta erregistroan inskribatu behar direnak, eta, beraz, aldaketa garrantzitsutzat jotzen direnak: ekoizpenaren, pertsonalaren edo ibilgetuaren aldaketak, baldin eta aldaketa horiek %25 baino gehiago aldatzen badute lehendik dagoena. Portzentaia hori kalkulatzeko, izaera egonkorreko aldaketak hartuko dira kontuan, eta ez gertaera iragankor batek eragindakoak.

Salbuespena izango dira 10 langile baino gutxiago eta establezimendu bakarra duten enpresak. Izan ere,

cretos y se determinen los requisitos y documentación necesaria para la inscripción en el Registro de Establecimientos Industriales, estableciéndose el procedimiento para mantenerlo actualizado.

En su virtud, de conformidad con las disposiciones citadas y otras de general y concordante aplicación,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito de aplicación.

1.– La presente Orden tiene por objeto regular el procedimiento administrativo para la inscripción en el Registro de Establecimientos Industriales, conforme a las prescripciones impuestas por el Decreto 5/1996, de 9 de enero, modificado por Decreto 10/2002, de 15 de enero.

2.– Serán objeto de inscripción, tanto las actividades industriales nuevas como las actividades existentes a la fecha de su entrada en vigor, siempre que, con respecto a estas últimas se produzca una de las variaciones significativas previstas en el artículo 2 de esta Orden.

*Artículo 2.*– Variaciones significativas.

A los efectos previstos en la presente Orden, se considerará variación significativa:

1.– Cambio de Actividad.

Cuando se varíe, fundamentalmente, la clase, especie o naturaleza de los productos fabricados o de los servicios prestados, modificando o no los elementos de producción o los medios materiales disponibles.

2.– Traslado.

El cambio físico de ubicación del establecimiento donde se realiza la actividad industrial.

3.– Cambio de Titularidad.

La variación en la personalidad jurídica del titular o el cambio en la titularidad de la actividad o establecimiento industrial.

4.– Otras variaciones significativas en los Establecimientos Industriales.

Se considerarán, a efecto de comunicación para inscripción en el Registro, como variación significativa, además del cese, cambio de titularidad, actividad o ámbito geográfico de actuación, las modificaciones de producción, del personal o del inmovilizado que altere en más del 25% las existentes. Para el calculo de la variación sólo se tendrán en cuenta aquellas modificaciones que se efectúen con carácter de estabilidad, no así aquellas modificaciones derivadas de circunstancias transitorias.

Excepcionalmente, las empresas con un solo establecimiento que empleen menos de 10 trabajadores, sólo

aurreko paragrafoan zerrendatutako aldaketak jakinarazi beharko dituzte, baina baldin eta lehendik dagoena %40 baino gehiago aldatzen bada.

*3. artikulua.–* Arau orokorrak.

1.– Industria Establezimenduen Erregistroko inskripzioa egin arren, beste erakunde batzuen lizentzia edo baimenak ere bete egin beharko dira, baldin eta jarduera hasi aurretik bete beharreko betekizunak badira.

2.– Inskripzioko datuak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren ikuskapen guztiak egiteko aginduko du industria gaietan eskumena duen organoak.

*4. artikulua.–* Inskripzio eskabidea.

1.– Industria Establezimenduen Erregistroko inskripzioa egin behar duten industria jardueren edo establezimenduen titularrek inskripzioa egiteko eskabidea aurkeztu beharko dute nahitaez jarduera hasi baino lehen, edo, jarduera aurreragokoa bada, aldaketa nabarmenak egin baino lehen. Aldaketa nabarmenak Agindu honetako 2. artikuluan daude xedatuta.

2.– Eskabidearekin batera, honako agiria hauek aurkeztu beharko dira:

– Industria Establezimenduen Erregistroko inskripzio berriak badira:

* Datu tekniko eta ekonomikoei buruzko Industria Establezimenduen Erregistroko inprimakia, ondo beteta eta sinatuta.

* IFZ/IFKren kopia (pertsona fisikoa bada, NANaren kopia) eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta.

– Lehendik inskribatuta dagoen enpresa batean aldaketa garrantzitsuak badaude:

* Datu tekniko eta ekonomikoei buruzko Industria Establezimenduen Erregistroko inprimakia, ondo beteta eta sinatuta (aldaketen atala).

* Izena edo helbide soziala aldatzen bada, honako hauek aurkeztu beharko dira helbide sozial berria egiaztatu ahal izateko: IFZ/IFKren kopia (pertsona fisikoa bada, NANaren kopia) eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta.

* Jarduerari uzten bazaio, nahikoa izango da utzi egingo dela jakinaraztea edo datu tekniko eta ekonomikoei buruzko inprimakia aurkeztea (jarduerari uztea edo bajari buruzko atala).

*5. artikulua.–* Inskribatzeko prozedura.

Aurreko artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, eskabideak honela izapidetuko dira:

1.– Eskabidea eta Agindu honetako 4. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako agiriak aurkeztu ondoren, eskumena duen organoak egiaztatu beharko du ea agiriek

vendrán obligadas a comunicar las variaciones expresadas en el párrafo anterior, que supongan una modificación en más del 40% con respecto a las existentes.

*Artículo 3.–* Reglas generales.

1.– La inscripción en el Registro de Establecimientos Industriales, sé efectuará sin perjuicio de las autorizaciones o licencias de otros Organismos, que se deban obtener como requisito previo al inicio de la actividad.

2.– El Organo competente en materia de Industria podrá disponer cuantas inspecciones considere necesarias con el fin de comprobar los datos objeto de inscripción.

*Artículo 4.–* Solicitud de inscripción.

1.– Los titulares de aquellos establecimientos o actividades industriales que deban ser objeto de inscripción en el Registro de Establecimientos Industriales deberán solicitar la correspondiente inscripción, con carácter previo al inicio de la actividad o, en su caso, cuando vayan a efectuar variaciones significativas, en función de lo dispuesto en el artículo 2 de esta Orden.

2.– Junto con la referida solicitud, se deberá acompañar la siguiente documentación:

– Nuevas inscripciones en el Registro de Establecimientos Industriales:

* Impreso de declaración de datos técnico-económicos del registro de establecimientos industriales, debidamente cumplimentado y firmado.

* Copia NIF/CIF, DNI para personas físicas y alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

– Variaciones significativas de una empresa ya inscrita:

* Impreso de declaración de datos técnico-económicos del registro de establecimientos industriales, debidamente cumplimentado y firmado (apartado modificación).

* Además para el supuesto de cambio de denominación o razón social se deberá presentar, para acreditar la nueva razón social, copia NIF/CIF, DNI para personas físicas y copia del alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

* En el supuesto de cese de actividad bastará con la comunicación del cese o la presentación del Impreso de declaración de datos técnico-económicos (apartado baja o cese de actividad).

*Artículo 5.–* Procedimiento de inscripción.

Las solicitudes que se presenten, en virtud de lo establecido en el artículo anterior, se tramitarán conforme al siguiente procedimiento:

1.– Presentada la solicitud, junto con la documentación referida en el apartado 2, del artículo 4 de esta Orden, el órgano competente comprobará, si esta do-

Agindu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten.

2.– Eskabideak eta/edo agiriek ez badituzte betekizunak betetzen edo ez badituzte betekizunok behar bezala betetzen, interesatuari eskatuko zaio betekizunok betetzeko edo dagozkion argibideak emateko, eta, horretarako, hilabete bateko epea emango zaio.

3.– Eskabideak betekizun guztiak betetzen dituela frogatu ostean edo, aurreko paragrafoan adierazita dagoen bezala, akatsok konpondu direla egiaztatu ostean, inskripzioa egingo da.

4.– Eskatutako ez bada egiten eta, funtsezko datu edo agiriren bat ez aurkezteagatik, ezin bada inskripziorik egin, interesatuari horren berri emango zaio eta espedientea artxibatu egingo da.

*6. artikulua.*– Erregistroko datuak eguneratzea.

1.– Establezimenduaren titularrak 4 urtean behin jakinarazi beharko ditu azken jakinarazpena egin zuenetik gertatu diren eta erregistroan jasotzekoak diren aldaketei buruzko datuak, bai eta aldatu ez diren datuak berretsi ere. Erregistroko datuak eguneratzeak ez du zerikusirik Agindu honetako 2. artikuluan aurreikusitako aldaketa garrantzitsuak jakinarazteko derrigortasunarekin.

2.– Hala ere, industria gaietan eskumena duen organoa konturatzen bada erregistroko datuetan akats, huts edo aldaketaren bat dagoela, hori eguneratzeko edo zuzentzeko eskatu ahal izango du, arau honek xedatzen duena betez.

*7. artikulua.*– Erregistroa berrikustea.

1.– Aurreko artikuluan aurreikusi da titularrak eguneratu behar dituela datuak. Hala ere, industria gaietan eskumena duen organoak ere egunera ditzake datuok ofizioz, hau da, arau honetan xedatutako moduan inskripzioak egin eta erregistroko datuak eguneratuta izateko jardun ahal izango du.

2.– Erregistroak berrikustean ikusten bada inskribatutako datuak eta ikusitakoa ez datozela bat eta aldaketak egon direla, eskumena duen organoak antzemandako aldaketa jakinarazi beharko dio interesatuari. Jakinarazpena egin eta hamar (10) egunen buruan interesatuak ez badu aldaketaren aurka behar bezalako justifikaziorik aurkeztu, eskumena duen organoak ofizioz eguneratu beharko du erregistroa.

*8. artikulua.*– Jarduerari uztea eta erregistroko oharra ezeztatzea.

Industria establezimenduaren titularrak industria gaietan eskumena duen organoari jakinarazi beharko dio jarduera utzi duela, organo horrek Industria Establezimenduen Erregistroko inskripzioa ezezta dezan.

cumentación cumple los requisitos establecidos en la presente Orden.

2.– En el supuesto de que la solicitud y/o documentación presentadas no reúnan los requisitos exigidos o aquélla sea insuficiente, se requerirá al interesado para que, en el plazo máximo de un mes, complemente o aclare los extremos pertinentes.

3.– Una vez comprobado que la solicitud reúne los requisitos exigidos o acreditada su subsanación en función de lo establecido en el punto anterior, se procederá a efectuar, la correspondiente inscripción.

4.– No atendido el referido requerimiento y no siendo posible la inscripción, por haberse omitido algún dato o documento de carácter sustancial, se comunicará dicha circunstancia al interesado ordenándose el archivo del expediente.

*Artículo 6.*– Actualización de los datos del registro.

1.– Las variaciones de datos registrables que se hayan producido desde la última comunicación, así como, en su caso, la confirmación de los que no hayan sufrido variación, se efectuará, por el titular del establecimiento, con una periodicidad de 4 años. Esta actualización será independiente de la obligación de los titulares de establecimientos industriales, de comunicar cualquiera de las variaciones significativas previstas en el artículo 2 de esta Orden.

2.– No obstante, el órgano competente en materia de Industria, cuando tenga conocimiento de la existencia de cualquier modificación, error o deficiencia en los datos regístrales, podrá exigir su actualización o corrección, conforme a lo dispuesto en la presente norma.

*Artículo 7.*– Revisión del registro.

1.– Independientemente de la actualización de datos prevista en el artículo anterior, el órgano competente en materia de Industria, de oficio, realizará las actuaciones necesarias al objeto de inscribir y mantener actualizados los datos regístrales en los términos previstos en la normativa vigente.

2.– Si como resultado de las referidas comprobaciones se observara alguna variación con respecto a los datos inscritos, el órgano competente notificará al interesado el contenido de la variación detectada. Transcurridos 10 días desde la referida comunicación, sin que el interesado haya justificado suficientemente su oposición a dicha modificación, se procederá de oficio a la actualización del Registro.

*Artículo 8.*– Cese de actividad y cancelación de la anotación registral.

El titular del establecimiento industrial deberá comunicar al órgano competente en materia de Industria, el cese de la actividad, a efectos de que se proceda a la cancelación de la inscripción en el Registro de Establecimientos Industriales.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Kontuan hartzen bada Agindu honetan aurreikusitako izapidetze-prozedura lehengoa baino mesedegarriagoa dela interesatuentzat, Agindu hau indarrean sartu aurretik hasi eta artean bukatu gabe dauden espediente guztiak Agindu honetan aurreikusitako arauen arabera izapidetuko dira Agindua indarrean sartzen den unetik aurera, izapideak bukatu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

*Lehenengoa.–* Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1996ko otsailaren 29ko Agindua indargabetzen da. Agindu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Establezimenduen Erregistroa eta establezimenduak instalatzeko, zabaltzeko eta tokiz aldatzeko jardunbidea arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 9ko 5/1996 Dekretua garatzen du.

*Bigarrena.–* Era berean, indargetu egiten dira Agindu honetan xedatutakoaren aurka dauden xedapen guztiak, Agindu honen mailakoak ala beheragokoak badira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Industria gaietan eskumena duen zuzendaritzak, arau honetan dauden xedapen guztiak behar bezala aplikatu eta interpretatu ahal izateko, egoki jotzen dituen jarraibideak eman ahal izango ditu.

*Bigarrena.–* Era berea, industria gaietan eskumena duen zuzendaritzari ahalmena ematen zaio Agindu honen bidez onartzen diren agirien edukia moldatu eta eguneratzeko.

*Hirugarrena.–* Agindua hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko urtarrilaren 30a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

DISPOSICION TRANSITORIA

Considerando que el procedimiento de tramitación previsto en la presente Orden es más favorable para los interesados, todos los expedientes iniciados y no finalizados con anterioridad a su entrada en vigor se tramitarán, a partir de la misma y hasta su finalización, de acuerdo con las normas previstas en la presente Orden.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

*Primera.–* Queda derogada la Orden de 29 de febrero de 1996, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, de desarrollo del Decreto 5/1996, de 9 de enero, por el que se aprueba el Reglamento regulador del Registro de Establecimientos Industriales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el régimen para su instalación, ampliación y traslado.

*Segunda.–* Asimismo, quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* La Dirección competente en materia de industria podrá dictar todas aquellas Instrucciones que considere necesarias para una correcta aplicación e interpretación de las disposiciones contenidas en la presente norma.

*Segunda.–* Así mismo, se faculta a la Dirección competente en materia de industria para adaptar y actualizar el contenido de los documentos que se aprueban mediante la presente Orden.

*Tercera.–* La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz a 30 de enero de 2002.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

IE-1 Eranskina/*Apéndice RI-1*

DATU TEKNIKO ETA EKONOMIKOEI BURUZKO INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUEN ERREGISTROKO INPRIMAKIA.
*IMPRESO DE DECLARACIÓN DE DATOS TÉCNICO-ECONÓMICOS DELREGISTRO DE ESTABLECIMIENTOS INDUSTRIALES*

IE-1 Eredua (Industria jarduerak eta establezimenduak)
*Modelo RI-1 (Establecimientos y actividades industriales)*

| | | |
|---|---|---|
| Industria Erregistroko Inskripzio zenbakia: *N.º Inscripción en el Registro Industrial*: | | |

❑ Establezimendu berria / *Nuevo establecimiento*
❑ Aldaketa/*Modificación por*:
- ❑ Zabaltzea edo murriztea *Ampliación o Reducción*
- ❑ Titulartasuna aldatzea *Cambio de titularidad*
- ❑ Lekualdatzea *Traslado*
- ❑ Berrikustea *Revisión*

❑ Jarduerari uztea edo baja ematea / *Baja o Cese de actividad*

①

| | |
|---|---|
| Erregistro Berezia: *Registro Especial de*: | |
| Erregistro Bereziko zk.: *N.º Registro Especial*: | |
| EJSN *C.N.A.E*: | |

ENPRESAREN DATUAK / *DATOS DE LA EMPRESA*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Izena edo helbide soziala *Nombre o Razón social* | | | | | |
| Helbidea/*Domicilio* | | | | | |
| Telefono zenbakia *N.º teléfono* | | Fax zk. *Nº fax* | | Posta elektr. *C. Electr.* | |

KAPITAL SOZIALA/*CAPITAL SOCIAL*

| | |
|---|---|
| Euroak / *euros* | |

KAPITAL FINKOAREN INBERTSIOAK (euroak)
*INVERSIONES CAPITAL FIJO (euros)*

| |
|---|
| Ibilgetua: material gordina, azken balantzearen arabera. *Inmoviliz. material bruto s/ último balance*: |
| |
| Makineria eta instalazioak: *Maquinaria e Instalaciones*: |
| |

INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK
*DATOS DEL ESTABLECIMIENTO INDUSTRIAL*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Izena edo errotulua: *Denominación o Rótulo*: | | | | | |
| IFZ / *N.I.F.*: | | | | | |
| Jarduera / *Actividad*: | | | | | |
| Herria / *Municipio*: | | | | Posta K / Cód. Postal: | |
| Lurralde Historikoa: Territorio Histórico: | | | | Herriaren Kodea: *Cód. Munic.*: | |
| Kalea / *Calle, Paraje*: | | | | ZK / *N.º* | |
| Telefonoa / *Teléfono* | | Fax zk. / N.º fax | | Posta elektr. / C. Electr. | |
| EAEn dauzkan establezimenduak, hau barne: *Nº Establecimientos que posee, en la CAPV incluido éste*: | | | | | |
| Gizarte Segurantzako kotizazio nagusiaren kontu-kodea: *Código de cuenta de cotización principal a la S.S.* | | | | | |

PERTSONALA
*PERSONAL*

| | |
|---|---|
| Langile kopurua guztira: *N.º Total de trabajadores*: | |

ORUBEAK ETA ERAIKINAK
SOLARES Y EDIFICIOS

| | | |
|---|---|---|
| Orubeak/*Solares* | | $m^2$ |
| Eraikinak/*Edificio* | | $m^2$ |

POTENTZIA ELEKTRIKOA
*POTENCIA ELÉCTRICA*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Kontratatua/*Contratada* | | kW | kVA |
| Transformazioan *En transformación*: | | | kVA |

URTEROKO ENERGIA KONTSUMOAK
*CONSUMOS ANUALES DE ENERGIA*

| | | |
|---|---|---|
| Elektrizitatea: Electricidad: | | kWh |
| Gas naturala: *Gas Natural*: | | $m^3N$ |
| G.L.P. | | t |
| Gasolioa *Gasóleo* | | $m^3$ |

Ingurumen-inpaktuaren adierazpena dauka: BAI ❑ EZ ❑
*Posee declaracion de impacto ambiental SI ❑ NO ❑*

LEHENGAIAK (Urteko datuak) ⑤ / *MATERIAS PRIMAS (Datos anuales)* ⑤

| Kodeak ④/*Códigos* ④ | Deskripzioa ② / *Descripción* ② | Kopurua / *Cantidad* | Unitatea / *Unidad* |
|---|---|---|---|
| 1.- | | | |
| 2.- | | | |
| 3.- | | | |
| 4.- | | | |
| 5.- | | | |

BUKATUTAKO PRODUKTUA (urteko datuak) / *PRODUCTOS TERMINADOS (Datos anuales)*

| Kodeak ④/*Códigos* ④ | Deskripzioa ② / *Descripción* ② | Kopurua / *Cantidad* | Ubitatea / *Unidad* |
|---|---|---|---|
| 1.-<br>2.-<br>3.-<br>4.-<br>5.- | | | |

INDUSTRIA SEGURTASUNEKO ERREGELAMENDUEN MENPE DAUDEN INSTALAZIOAK ③
*INSTALACIONES AFECTADAS POR REGLAMENTOS DE SEGURIDAD INDUSTRIAL* ③

| | | | |
|---|---|---|---|
| ❑ Suteen aurkako segurtasunak<br>*Segur. contra incendios* | ❑ Goi-tentsioa<br>*Alta tensión* | ❑ Instalazio frigorifikoak<br>*Inst. frigoríficas* | ❑ Berogailuen / Aire egokituaren instalazioa<br>Instl. de calef. / Aire acond. |
| ❑ Behe-tentsioa<br>*Baja tensión* | ❑ Igogailuak<br>*Aparatos elevadores* | ❑ Produktu kimikoak biltegiratzea<br>*Almac.produc. químicos* | ❑ Istripu larriak<br>*Accidentes Graves* |
| ❑ Presioko ekipoak<br>*Equipos a presión* | ❑ Gas instalazioak<br>*Instalaciones de gas* | ❑ Erregai likidoen instalazioak<br>*Instl. de combust. líquidos* | ❑ Instalazio erradioaktiboak<br>*Instalaciones radiactivas* |
| ❑ Bestelakoak<br>*Otros* | | | |

Enpresaren ordezkari ______________________________ jaun/andreak agiri honetan jasotako datu guztiak egiazkoak direla ADIERAZTEN DU eta horien ERANTZUKIZUNA hartzen du bere gain. Horrez gain, Industria Estabelziemenduen Erregistroan inskribatzeko ESKATZEN DU.

El representante de la Empresa D. ______________________________ DECLARA y se RESPONSABILIZA de la veracidad de los datos contenidos en este documento y SOLICITA la inscripción correspondiente en el Registro de Establecimientos Industriales.

______________(e)n, 200__(e)ko __________aren _______(a).

(Enpresaren sinadura eta zigilua)

En____________ a ____ de __________ de 200 ___

(Firma y sello de la empresa)

① (Administrazioak bete beharreko datuak).
② (Gehienez ere 5 lerro idatzi. Gutxienez ekoizpenaren %10ren adierazgarri diren produktuak eta produktu berezituak edo arriskutsuak direlako aipatzea merezi dutenak adieraziko dira).
③ (Inskripzio honek ez du esan nahi adierazi diren instalazioak martxan jartzeko baimena eman denik).
④ (Jardueren araberako produktuen sailkapen nazionala onartzen duen urtarrilaren 26ko 81/1996 Errege Dekretua; CNPA-96).
⑤ Azken produktuaren zatiak eta piezak adierazi beharko dira.

① *(Datos a rellenar por la Administración.*
② *(Limitarse a un máximo de 5 líneas (que represente, cada uno, al menos un 10% de la producción o sean significativos por su singularidad o peligrosidad).*
③ *(Esta inscripción no supone autorización/puesta en servicio de las instalaciones declaradas.*
④ *(Según RD 81/1996, de 26 de enero por el que se aprueba la clasificación Nacional de Productos por Actividades 1996 (CNPA-96*
⑤ *Se incluirán las partes y piezas que integren el producto final.*

**IE-2 Eranskina/*Apéndice RI-2***

DATU TEKNIKO ETA EKONOMIKOEI BURUZKO INDUSTRIA ESTABLEZIMENDUEN ERREGISTROKO INPRIMAKIA.
*IMPRESO DE DECLARACIÓN DE DATOS TÉCNICO-ECONÓMICOS DELREGISTRO DE ESTABLECIMIENTOS INDUSTRIALES*

IE-2 Eredua (Industria jarduerekin zerikusi zuzena duten zerbitzu-enpresak)
(Industria Segurtasunaren eta Kalitatearen arloan administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko baimena duten agenteak)

*Modelo RI-2 (Empresas de Servicios relacionadas directamente con las actividades industriales*
*(Agentes autorizados para colaborar con las Administraciones Públicas en materia de Seguridad y Calidad Industriales)*

Industria Erregistroko Inskripzio zenbakia / *N.º Inscripción en el Registro Industrial:* ☐ ☐

❑ Establezimendu berria / *Nuevo establecimiento*
❑ Aldaketa/*Modificación por:* ❑ Zabaltzea edo murriztea / *Ampliación o Reducción*
❑ Titulartasuna aldatzea / *Cambio de titularidad*
❑ Lekualdatzea / *Traslado*
❑ Berrikustea / *Revisión*
Jarduerari uztea edo baja ematea / *Baja o Cese de actividad*

①

| | |
|---|---|
| Erregistro Berezia: *Registro Especial de:* | |
| Erregistro Bereziko zk.: *N.º Registro Especial:* | |
| EJSN / *C.N.A.E:* | |

ENPRESAREN DATUAK / *DATOS DE LA EMPRESA*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Izena edo helbide soziala / *Nombre o Razón social:* | | | |
| IFZ / *N.I.F.:* | | | |
| Izena edo errotulua / *Denominación o Rótulo:* | | | |
| Udalerria / *Municipio:* | | Posta K. / *Cód.Postal* | |
| Herria / *Localidad:* | | Herriaren Kodea / *Cód Munic.* | |
| Kalea / *Calle:* | | ZK. / *Nº* | |
| Telefonoa / *Teléfono:* | Fax zk. / *Nº Fax:* | Posta elektr. / *C. Electro.* | |

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAUZKAN BULEGOAK / *SUCURSALES QUE POSEE EN LA CAPV.* ZK / *N.º:*

| Kalea / *Calle* | Udalerria / *Municipio* | Posta K. / Cód. Postal |
|---|---|---|
| | | |

JARDUERA / *ACTIVIDAD*

| | |
|---|---|
| ❑ Instalatzailea / *Instalador* | ❑ Aholkulatitza / *Consultoría* |
| ❑ Kontserbatzailea - Mantentzailea / *Conservador - Mantenedor* | ❑ Ingeniaritza / *Ingeniería* |
| ❑ Kontrol organismoa / *Organismo de Control* | ❑ Proiektugilea / *Proyectista* |
| ❑ Ingurumenaren egiaztatzailea / *Verificador medioambiental* | ❑ Laborategiak / *Laboratorios* |
| ❑ Egiaztapen entiatea / *Entidad de Certificación* | ❑ Bestelakoak / *Otros:* |

JARDUTEKO TOKIA / *ÁMBITO GEOGRÁFICO*

❑ Estatua / *Ámbito estatal*
❑ EAE / *Ámbito CAPV*
❑ Lurralde Historikoa / Probintzia *Territorio Histórico/Provincia*

KAPITAL SOZIALA / *CAPITAL SOCIAL*
Euroak / *euros:* ☐

PERTSONALA / *PERSONAL*
Langile kopurua guztira / *N.º Total de trabajadores:* ☐

EAE-KO ERAIKINAK / *EDIFICIOS CAPV*
Eraikinak *Edificios:* ☐ $m^2$

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA BAI ❑ EZ ❑ / *SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL SI* ❑ *NO* ❑ – *Zenbatekoa/ Cuantía:* ☐

JARDUERA NAGUSIAK EDO ARAUZKO ARLOAK / *ACTIVIDADES PRINCIPALES O CAMPOS REGLAMENTARIOS*

1
2
3
4
5

OINARRIZKO BALIABIDE MATERIALAK / *PRINCIPALES MEDIOS MATERIALES*

1
2
3

Enpresaren ordezkari ______________________ ______________________ jaun/andreak agiri honetan jasotako datu guztiak egiazkoak direla ADIERAZTEN DU eta horien ERANTZUKIZUNA hartzen du bere gain. Horrez gain, Industria Estabelziemenduen Erregistroan inskribatzeko ESKATZEN DU.

El representante de la Empresa D. ______________________ ______________________DECLARA y se RESPONSABILIZA de la veracidad de los datos contenidos en este documento y SOLICITA la inscripción correspondiente en el Registro de Establecimientos Industriales.

______________(e)n, 200__(e)ko __________aren _______(a).
(Enpresaren sinadura eta zigilua)

En____________ a ____ de _________ de 200 ___
(Firma y sello de la empresa)

① (Administrazioak bete beharreko datuak) / *(Datos a rellenar por la Administración)*